

{ datorrena } **Isidro ESNAOLA**

Errusiazaleak baino, gerraren aurkakoak

Errumaniako hauteskunde presidentzialen lehen itzuliaren emaitza harrigarriaren eta *establishment* europarraren erreakzioaren ondorioz, duela gutxi ikusi nuen film errumaniarrarekin gogoratu naiz. "Ibarren artean" du izena eta Radu Munteanek zuzendu zuen. Filmak gabonetako opariak banatzen ari den gobernuz kanpoko erakunderen bateko boluntario talde baten istorioa kontatzen du. Bisitatzen dituzten pertsona gehienak adinekoak dira, eta axolagabekeria osoz jasotzen dituzte paketeak. Batzuek mugitzeko arazoak dituzte, eta guztiak bakarrik bizi dira. Agerikoa da pertsona horien beharrak bestelakoak direla: konpainia, laguntza medikoa, gizarte-laguntza. Boluntarioek paketeak ematen dizkiete, hitz atsegin batzuk zuzentzen dizkiete, eta hurrengo helmugara abiatzen dira. Banatzaileen jarrerak agerian uzten du, nahi gabe bada ere, boluntarioen helburua jada ez dela pertsona horiei laguntzea, laguntza-pakete madarikatu horiek banatzea baizik. Beste behin ere, tresna izan behar zena helburua bilakatu da. Eta legioa dira munduan zehar horrela ibiltzen diren boluntarioak, inork eskatu ez dien laguntza banatzen.

Errumaniako beste film batek, RMNk, oharkabea Europako ingurumen-laguntzak ere kritikatzeko ditu. Protagonista batek dio ez duela zentzurik ingurumena babesteko laguntzak ia birjina mantentzen den naturagune batera bideratzeak, bertan bizi diren komunitate horiek enpleguak eta gizarte-azpiegiturak behar dituztenean. Detalle horiek aditzera ematen dute Mendebaldeko instituzioek jendeak behar ez dituen gauzak banatzen dituztela eta jendeak nahi ez dituen proiektuak bultzatzen dituztela. Despotismo ilustratuaren bertsio modernoa, «dena herriarentzat, baina herririk gabe» leloan laburbiltzen zena.

Horregatik, presidentetzarako hauteskunderen lehen itzulian eskuin muturreko hautagaiak irabazi zutenean, agintean dagoen alderdi sozialdemokrataren hautagaia bigarren txandatik kanpo utziz, bururatu zitzaizen gauza bakarra izan zen Calin Georgescu hautagai putinzalea edo errusiazalea dela esatea. Epiteto horiek norbaiti esan diezaioketen gauzarik txarrena bihurtu dira, are larriagoa da ultraeskuindarra dela esatea baino; bere aipamen hutsak deabrutu egiten du jendea, gainerako guztia sobera egoteraino. Georgescu, berez, oso kritikoa da NATOrekin eta EBrekin; baita Ukrainako gerrarekin ere.

Errumania ez da herrialde errusiazalea izan, ezta Varsoviako Itunaren garaian ere. Nicolae Ceaucescu bertso librea izan zen. Mosku eta Pekinen arteko haus-

Errumania ez da herrialde errusiazalea izan, ezta Varsoviako Itunaren garaian ere. Mosku eta Pekinen arteko haustura gertatu zenean, Txinarekin harremanak mantendu zituen, adibidez.

tura gertatu zenean, Txinarekin harremanak mantendu zituen, adibidez. Santiago Carrillok ere sarri bisitatu zuen. Aurrekari horiekin, NATOk pentsatu zuen prebenda batzuk banatuz herrialdea kontrolpean izango zuela eta arriskurik gabekoa bihur zezakeela NATOk Ukrainaren atzegoardian duen operazio basea eta Itsaso Beltzean duen portua. Eta bat-batean, NATOren aurkako hautagaiak irabazi zituen hauteskundeak. Joan den igandeko parlamentarioetan, kalteak geldiaraztea lortu zuten, eta litekeena da bigarren itzulian hautagai egokiak irabaztea, "NATOzaleak", alegia. Beste gauza bat da mezua ulertu izana: errumaniarrak ez dira errusiazaleak, gerraren aurkakoak baizik. •